

AIAKO HARRIA BTT MARATOIA. ARAUDIA.

- Maratoian parte hartu aurretik, azterketa medikoa egitea gomendatzen da.
- Izen-ematea baieztatu ondoren, ez da dirurik itzuliko.
- Derrigorrezkoa da kaskoa janztea.
- Derrigorrezkoa da federazio lizentzia eta NA dokumentua erakustea dortsala jaso ahal izateko.
- Dortsala bizikletaren aurrealdean jarri beharko da.
- Dortsala ezin da tolestu, ezta moztu ere.
- Istripurik balego, antolatzaileek ez lukete inolako erantzukizunik.
- Debekatuta dago kanpotik laguntza jasotzea eta ibilgailuen atzean joatea.
- Parte-hartzaileek markatutako ibilbidea errespetatu beharko dute.
- Antolatzaileek egoera fisiko txarrean dagoen edota ordutegitik kanpo dabilen parte-hartzaile oro kanporatu ahal izango dute.
- Proba uzten duten parte-hartzaileek jakinarazi egin beharko diete antolatzaileei.
- Zaborrak horretarako prestatutako guneetan utzi beharko dira.
- Behar baino lehenago abiatzen direnak maratoitik kanporatuak izango dira.

